

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Hedabideetan agertzen diren testu-genero ezberdinak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.	<p>1.1. Hedabideetan erabiltzen diren testu-generoak ezagutzen ditu.</p> <p>1.2. Testu-generoen ezaugarri nagusienak identifikatzen ditu.</p> <p>1.3. Informazioa eta/edo iritzia ematen duten kazetaritza-generoak bereizten ditu.</p> <p>1.4. Narrazio-testuak eta haien artean partekatzen dituzten ezaugarriak bereizten ditu.</p> <p>1.5. Kronika beste kazetaritza-genero batzuetatik bereizteko gai da.</p>
2. Kronikaren ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.	<p>2.1. Genero bakoitzak dituen ezaugarriak identifikatzen ditu.</p> <p>2.2. Testuak planifikatzen ditu aurrez emandako komunikazio egoeraren arabera.</p> <p>2.3. Aurrez ezarritako irizpideen arabera, kronika idazten, eta zuzentzen du.</p>
3. Hautatutako generoetan, gertatutakoa baloratu eta interpretatzeko erabiltzen diren baliabideak ezagutzea eta ikertzea.	<p>3.1. Informazio eta interpretazio-testuetan erabiltzen diren baliabideen helburua bereizteko gai da.</p>
4. Gaitasun linguistikoa hobetu nahian, norberaren ekoizpen linguistikoak zein besteenak baloratzen jakitea.	<p>4.1. Gaztelaniaren eraginez aditzari loturiko transferentzi okerrak zuzentzen ditu.</p> <p>4.2. Kohesio elementuak zuzen erabiltzen ditu.</p>
5. IKTak erabiltzea informazioa era eraginkorren bilatzeko eta testuak egokitzeko zein zuzentzeko.	<p>5.1. IKTak erabiltzen ditu sekuentzian eskatutako informazioa bilatzeko.</p> <p>5.2. IKTak erabiltzen ditu testuen edizio egokirako.</p> <p>5.3. IKTak erabiltzen ditu testuak zuzentzeko.</p>